EUSKARAREN HILABETEA
2021EKO MARTXOA
Dela gora
dela behera,
euskarak
beti aurrera
HH - LH4
ikasleen lanak
Ayuntamiento
Udala
irun

AGURRA

Kaixo, gazte!

Irungo gizartea gero eta anitzagoa da, eta aniztasun horretan euskarak bere lekua aurkitu behar du. Hizkuntzen eta muga geografikoen arteko loturak gero eta lausoagoak dira egungo gizartean, ia desagertzera iritsiz, eta euskarak trantsizio hori bera egin behar du gaurko gizarte anitz honetan txertatu eta hazi nahi badu. Zer esanik ez teknologiei dagokienez: gero eta gehiago, gailu teknologikoen bitartez bizi dugu gure munduaren zati handi bat, eta hizkuntzak errealitate birtual horretan txertatu behar dira.

Horretarako, zuen guztien laguntza behar du euskarak. Pandemiak gure ohitura guztiak hankaz gora jarri ditu eta sozializatzeko aukerak ikaragarri murriztu ditu, kasu askotan esparru telematikoetara mugatuz. Eta, jakina, gure hizkuntza-ohituretan eragina nabarmena izan da. Aski ongi dakizue lerro hauetan esaten ari natzaizuena, eta oso ongi dakit sekulako esfortzua egiten ari zaretela zeuen bizitzei eusteko eta zeuen harremanak mantentzeko.

Eskerrak eman nahi dizkizuet egoera izugarri zail eta gogor honetan egiten ari zareten lanagatik. Miresgarria iruditzen zait zuen kemena eta jasangarritasuna. Pandemia hau, beste gaitz guztiak bezala, noizbait gaindituko dugu, eta gizarte gisa ahalik eta indartsuen irteteko, funtsezkoak izango dira elkartasuna eta laguntasuna.

Sor ditzagun denon artean sareak, harreman sozialak euskaraz mantentzeko. Gizarte aberatsa dugu; kolore, kultura, ideia eta mundua ikusteko modu eta sentsibilitate askoz josia. Eta aberastasun horren barruan, euskara dugu guztion ezaugarri eta altxor berezienetako bat. Zaindu dezagun denon artean!

Eutsi goiari!

IRUNERO

ARGITARATZAILEA:

837 Comunicación y Publicidad S.L.

MAKETAZIOA: Ainara Berges

LEGE GORDAILUA:
SS-230-94

Ayuntamiento Udala
irun

AURKIBIDEA

BELASKOENEA
– Udazkena Haur Hezkuntzan 4. or.
– Produktuen azukrea 13. or.
– Azaroaren 25a 23. or

DUNBOA
– Euskararen uretan murgilduta 5. or.
– Ubarrola 14. or.
– Txisteak 24. or.

EGUZKITZA
– Itsasoko animaliak 6. or.
– Problema 16. or.
– Pixel-art 25. or.
– Udazkena 25. or.

ELATZETA
– Piet Mondrian 7 . or.
– Igarkizunak / ahokorapiloak 17. or.
– Txitoak 26. or.

EL PILAR
– Marrazkia 8. or.
– Gabonetako Olerkia 18. or.
– Berri bitxia 27. or.

IRUNGO LA SALLE
– Elur beroa 19. or.
– Kaletik soinuak 28. or.

LEKAENEA
– Euskaraldirako prest 9. or.
– Olerkitxoak 20. or.
– Animalia ornodunak 29. or.

SAN VICENTE DE PAUL
– Euskaraz trinko eta brinko 10. or.
– Asmakizunak 21. or.

TOKI ALAI
– Marrazkia 11. or.
– Liburuak 22. or.
– Euskararen puzzlea 30. or.

TXINGUDI IKASTOLA
– Euskararen festa 12. or.
– Euskaraz bizi nahi dut 15 or.
– Esaera zaharrak emotikonoen bidez 31. or.

UDAZKENA HAUR HEZKUNTZAN

UDAZKENA IRITSI DA ETA HAUR HEZKUNTZAN KONTURATU GARA .

HOSTOAK BILTZEN, SOROXARTARA JOATEN, PARKERA ATERATZEN, UDAZKENEKO FRUITUEKIN ESKULANAK EGITEN ETA BI URTEKO GELAN GURE LEHENENGO ARTELANA MARGOTZEN OSPATU DUGU. GARAI POLITA BENETAN.

DUNBOA HH EUSKARAREN URETAN MURGILDUTA



Marrazo hau benetan beldurgarria!!!



Eguzkitza eskolako 5 urteko haurrek egindako horma-irudia," Itsasoko animaliak" proiektuaren harira.



Eguzkitza HH

Elatzeta HH

El Pilar HH

EUSKARALDIRAKO PREST !!

Lekaenea HH

San Vicente de Paul HH

Toki Alai HH



1GO MAILAKO IKASLEOK PRODUKTU EZBERDINEK DUTEN AZUKRE KANTITATEA AZTERTU DUGU

Belaskoenea eskolako lehengo mailako A eta B taldeko ikasleok, jaten ditugun produktuen ezberdinetan dagoen azukre kantitatea ikertu dugu. Produktu askok uste genuena baina azukre kantitate handiagoa dutela konturatu gara eta produktu hauek asko kontsumitzen ditugula jabetu gara.

Beraz, hemendik aurrera, gehiago zainduko dugu jaten duguna!!

ZAINDU ZURE ELIKADURA, OSASUNTSU HAZTEKO!!



ELHADJI NDONG, 1.B

Dunboa LH1



Txingudi Ikastola LH1

Eguzkitza eskolako 2. Mailako ikasleek, ikasturte honetan jo eta ke dabiltza matematika ikasten eta problemak asmatu dituzte. Den dena ikasleek egin dute asmatu eta ebatzi. Artista azkarrak!!!

IGARKIZUNAK

Tik-tak, tik-tak
sekula ez naiz
isiltzen:
orduBata orduLaiak,
hirurak...
sekula ez naiz
nekatzen.
Zer da ?

Bizkarra badu
baina besoak ez,
Hankak baditu,
baina ez daki ibiltzen.
Alfetra denak
ondo daki irakurtzen.
Zer da?

AHOKORAPILOAK

Akerra adarrak
okerrak ditu.
Adarrak okerrak
akerrak ditu.
Adarrak akerrak
okerrak ditu.
Okerrak adarrak
akerrak ditu.

Tronpatatxu,
tronpatatzen
zortzipuntuko
Hondarribian
Bederatzi ahuntz
dantzan. Tronpatatzen
Tronpatatzen.
hamargarren ahuntza
trentzen tzantzen, tzontzen
txirula jotzen.

Elatzeta - 2. maila

Gabonetako Olerkiak

Olentzero

Tipi tapa, tipi ton
Olentzero badator.
Tipi tapa, tipi ton
Tripa haundiko gizon.
Olentzero salda bero,
Arain turroiak, opariak gero.
Tipi tapa, tipi ton
Olentzero badator.

Adur Alonso 2 A

Mari Domingi

Mari Domingi, Mari Domingi, Gora garri,
Olentzeroren Ofizia, mari Domingi, nik esko
Maite zaitut! Bai olentzero, nik ere asko maite
zaitut!

Claudia Baez
2.B

El Pilar LH2

Elur bersoa

Kaisco kaguenok lantzen aritu
garen Magia ala Zientzia proiektuan
egin dugun esperimentuetako bat
erakutsi nahi dizuegu.

Hau da behar dugun materiala:
Plater bat
Bikarbonatoa
Ile moldatzailea

Ondoren nola egiten den ikusiko duzue.

Bost goilaradada bikarbonato jarri
platerean eta sezidan goilaradada
bat ile moldatzaile bota ondo nahastu eta
lortuko dugu elur beroa.

Irungo La Salle LH2

2. mailan olerkitxoak ikasten

2. mailako ikasleekin urtarcei buruzko olerkitxoak ikasten aritu gara eta ikasle batzuk olerki batzuk egitera ere ausartu dira.

Hemen doakizue eguzkiari buruzko gure ikasle baten olerkitxoa.

Mamadou olerkia: Eguzkia.

Eguzkia asko egiten ari da.
Agian hondartzara joango gara.
Seguraski, beste gauza bat egingo dugu,
jolastea bezala edo bestela irakurriko dugu.

Gure eskulanak:

Lekaenea LH2

ASMAKIZUNAK

Hanka luzeak ditu mokoa erebai kumlak kanpaidorr ean izaten ditu

zitoina

Joel Moledo

Haria barutik haria kanpotik arrainetan sartu eta horkaluan gorde zer da?

Hodei perez

Uda hasieran dago, negu lukaeran ere bai. Zer da?

June Lekuona

San Vicente Ikastetxea
2. MAILA

San Vicente de Paul LH2

AZAROAREN 25a

EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA

Azaroaren 25ean, 4.A gelako ikasleok, **"Emakumeenganako indarkeriaren aurkako eguna"** ospatu genuen gelan.

Hasteko, **"Arturo eta Klementina"** audio-ipuina ikusi genuen eta guztion artean bertan gertatzen denari buruzko gogoeta egin genuen. Hona hemen ipuinaren inguruko iritzi batzuk:

"Hasieran oso polita iruditu zait baina gero ez."

"Oso polita da. Klementina ausarta da."

'Ongi bukatzen da azkenean Klementinak nahi duena egiten duelako."

"Ez zait asko gustatu. Arturok oso gaizki tratatzen du Klementina."

"Ez zait gustatu Klementinak gaizki pasatzen duelako".

"Oso polita da istorioa Klementinak bere beldurra kentzen duelako."

"Polita da ipuina baina Arturok oso gaizki tratatzen du Klementina."

"Oso polita da baina tristura sentitu dut."

Ondoren, guztion artean mural eder bat egin genuen ondoko leloarekin: **"Maite nauenak ongi tratatzen naul"**

Eta azkenik, jolastokira atera ginen gure mural a zintzilikatu (guztiak ikus zezaten) eta argazkia egitera.

Taldeoren argazkia.

Lagun guztiak elkarlanean.

Gogoratu lagunok, **MAITE NAUENAK ONDO TRATATZEN NAU BETI!**

TXISTEAK - 2.ZIKLOA - DUNBOA IKASTETXEA

Ikastolatik ateratzerakoan, haur batek esaten dio bere amari:

- Ama, bi notizia dakartzat zuretzat. Lehenengoa oso ona da : matematikan 10 atera dut.

- Oso ongi, oso ongi!

- Eta zein da bigarren notizia?- galdetzen dio amak.

-Ba, lehenengo notizia gezurra dela.

JAJAJAJAJAJAJAJAJAJAJA!

Gizon bat medikurenera joan zen eta esan zion:

-Mediku jauna , arazo bat daukat. Nire puzkerrek ez dute usainik.

-Hori ez da posible. Bota ezazu bat oraintxe bertan!

PPPPPRRRRRRRRR!

-Hori larria da. Ebakuntza behar duzu.

-Ipurdian?

-Ez, gizona, sudurrean.

JAJAJAJAJAJAJAJAJAJA

Txiste bat dago non hain motza eta hain motza den, bukatu egin dela.

JAJAJAJAJAJAJAJAJAJAJA

Aurten eguzkitzako 2 zikloko ikasleek teknika berri bat ezagutu dute PIXEL-ART, gustura ibili dira lanean eta hau bezalako irudiak osatu dituzte ea zuek gai zaretaen aldamenko orrian hau kopiatzeko. Animo!!!



Gure Gela Egonkorreko ikasleek udazkenean egindako lana, batetik margotu bestetik moztu eta kalera irten ziren hosto bila, lan polita gelditu zitzaien, ezta?

ELATZETA ESKOLAN 2.URTEZ JARRAIAN ***TXITOAK*** JAIO DIRA.

Oilotegia apaintzea izango dugu helburu.

20/21.ikasturtean 1.zikloko ikasleek, urriaren erdialdera, inkubadora batean arrautzak jarri zituzten. 21 egunez zaintzen ibili ziren, eta prozesu guztia txukun burutu zutenez 3 txito jaio ziren.

Orain, abenduan gaudela, 2.ziklokoei txito horien etxetxoa (oilotegia) eta ingurua atontzea dagokigu. 3. mailakoekin batera, eginbeharrekoak banatu ditugu(ura edatekoa eta janaria ematekoa fabrikatu, oheak kokatu eta laztoz bete, itxiturak konpondu, txitoek jolasteko eremua osatu ...) eta gabonetako oporrak baino lehen dena prest izango dugu txitoak bere oilotegian kokatzeko. Oilotegia prestatzen dugun bitartean, txitoak indarra hartzen ari dira; eta, ikasle zein irakasleen etxeetan pasatzen dute gaua. Txitoak gero eta handiagoak daude, BAIETZ ETXE ELEGANTE BAT ESKEIN!!!

GORA ELATZETA ESKOLA!!!
ELATZETA ESKOLAKO 4.maila

4.MAILA

BERRI BITXIA

Robert Vicker espetxetik ihes egin zuen eta 20 ordu beranduago bueltatu zen izugarrizko hotza egiten zuelako kanpoan.
Robert 42 urte ditu eta 20 ordu eman zituen ihesean. Igandean ihes egin zuen eta astelehen arratsaldean bere burua entregatzea erabaki zuen. Robert sei urteko kartzela zigorra betetzen ari zen lapurretagatik eta beste bost urte dokumentu faltsuak edukitzeagatik, Orain beste kargu batzuei aurre egin beharko die, espetxetik ihes egin duelako.

Irungo La Salle LH4

ANIMALIA ORNODUNAK

Natura Zientzietan animalia ornodunak landu ditugu: ugaztunak, narrastiak,arrainak,hegaztiak eta anfibioak.Beraien ezaugarriak eta taldeetako informazioa *lapbook* batean irudikatu ditugu.

LH 4.MAILA

Lekaenea LH4

EUSKARAREN PUZZLEA

Euskaraldiaren harira, gure euskararen erabilera aztertu dugu puzzleen bidez, hausnarketa egin eta hobetzeko asmoz. Ikasle bakoitzak bere puzzlearen piezak margotu ditu hainbat kolore erabiliz: berdea euskaraz egin badugu edo gorria ez badugu egin. Euskararen egunean, gelaka gure pieza guztiak elkartu ditugu puzzle bakar batean.

EGILEAK: TOKI ALAI 3. eta 4. maila

GEHIAGO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN.

"Zozoak beleari ipurbeltz"

1.

"Kaka aipatu eta usaina azaldu"

2.

"Txapela buruan eta ibili munduan"

3.

"Gustoko lekuan aldaparik ez"

4.

"Urak dakarrena urak daroa"

5.

"A ze parea karakola eta barea"

6.

"Egon adi lo ta jangoek mehe"

7.

"Eguzkia eta euria, erromako zubia"

8.

"Eroriz ikasten da ibiltzen"

9.

"Jan da lo beti potolo"

10.

"Kalean uso etxean otso"

11.

TXINGUDI IKASTOLA LH3 ETA LH4:

Euskara GEHIAGO egiten dugu, GEHIAGOREKIN eta GEHIAGOTAN.

Whatsappeko emotikonoak erabiliz euskal esaera zaharrak landu ditugu aurten.

1.
2.
3.
4.
5.
6.
7.
8.
9.
10.
11.

euskaraz
irun
Euskara Arloa
Euskara ikasi
Euskara aberastu
Euskaraz bizi
Erabilera Planak
Euskara Irunen
Euskararen aurkibidea
Loturak
FOTOTEKA
Jarraitu bitartez
Euskaraz bizi
SOLAS - JOLAS
GURASOAK ETA SEME-ALABAK
EUSKARAZKO PRODUKTUEN KATALOGOA
MERKATARIENTZAT MATERIALA
GU ERE BERTSOTAN
UDAL EUSKALTEGIAREN WEB ORRIA
ITZULPEN ZERBITZUA
ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ
LOIDI SEKA
kalean BAI
KALEAN BAI
LAN NAHI
LANNAHI
Diru-laguntzak
Zer behar duzu?
Euskara ikasi
Euskara erabili
Familian
Aisian
Kirolean
Lan munduan
Euskara aberastu
Euskararen aurkibidea
Euskara Irunen
Datuak
Euskararen aurkibidea
Kale izendegia
Irungo leku-izenak
Baliabideak
Baliabideak
Software-a euskaraz
Agiri ereduak
Produktuen katalogoak
Gaurkotasuna
Euskararen agenda
Martxoa 2021
Irungo leku-izenak
RSS - Gaurkotasuna